

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
24/2008	R2/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>GipuzkoakoForu Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

R 2/2010 ebazpena

24/2008 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2010eko abenduaren 20an

Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente duenak, eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide dituenak, ondoko

ERABAKIA

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioaren aurka planteatutako gatazka honen inguruan: “AAAAAA, SL” zergapekoak, IFZ zenbakidunak, eragiketa bolumenaren proportzioari dagokionez 2004ko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hiruhilekoetako aitorten-likidazioetan adierazi duen ordainarazpena, %100eko ordainarazpena Gipuzkoari aplikatzea dagokiolakoan.

I.- AURREKARIAK

1. Gatazka hau 2008ko maiatzaren 13ko sarrera dataz planteatu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak behar den eran eta epean bidalitako idatziaren bidez.
2. 2009ko uztailaren 21ean, hau erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak:

“Atzera egitea Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legean araututa dagoen Arbitraje Batzordearen aurrean eskumenak direla-eta Estatuko Zerga Administrazioari

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
24/2008	R2/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>GipuzkoakoForu Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

planteatutako gatazkan, non auzia baita zehaztea zer eragiketa bolumen eta, beraz, zein ordainarazpen dagokion Gipuzkoako Foru Aldundiari “AAAAAAA, SL” entitateak (IFZ:) 2004ko hiruhilekoetako aitorpen-likidazioetan, Aldundi honen ustez %100eko portzentajea Gipuzkoari dagokiolako, eta horren ondorioz, Foru Ogasunari 68.155,75 euro ordaintzea falta delako (zenbateko hori Estatuko Administrazioari ordaindu zaio).”

3. 2009ko uztailaren 22an Arbitraje Batzordean erregistratu zen beste idatzi baten bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Araugintzako eta Lege Aholkularitzako zerbitzuburuak gorago transkribatutako erabakia jakinarazi zion Arbitraje Batzorde honi. Erabaki hori zergapekoaren zerga helbidea 2003. urtera arteko atzera eraginez Tarragonara aldatzeko prozeduraren ebazpenetik eratoritzen da, aldaketa horrek zuzenean eragiten baitu Foru Aldundiak Ekonomia Ituneko 29. artikuluko erregelak aplikatuta, eta helbide hori foru lurralde horretan zegoelakoan, kalkulatu duen eragiketa bolumenean.

II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duenak, 8. artikuluan xedatzen duenez, “Arbitraje Batzordearen deialdiei, eraketari, bilkurei, ebazpen-hartzeari, funtzionamenduko araubideari eta prozedurari dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraituko zaio.”

2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 91. artikulua 2. apartatuta jasotakoaren arabera, “Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
24/2008	R2/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>GipuzkoakoForu Aldundia</i>	<i>Administrazio demandatuak amore ematea</i>

eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek.”

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

- 1.- Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren atzera egitea “AAAAAA, SL” zergapekoak, IFZ zenbakidunak, 2004ko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hiruhilekoetako aitorpen-likidazioetan adierazi duen eragiketa bolumenaren proportzioari eta, beraz, ordainarazpenari dagokienez.
- 2.- Agintzea jarduketak amaitu eta artxibatu daitezela, eta gaiarekin lotuta bidalitako dokumentazio guztia atzera bueltatu dadila.
- 3.- Erabaki hau jakinaraztea bai entitate eskatzaileari eta bai Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari.